

PRENTSA OHARRA

BC3 hondakin organikoen kudeaketak eragindako berotegi-efektuko gasen emisioan aitzindaria den ikerketa baten buruan da

- Ikerketak egiaztatzen du ohiko biltegitratzeak baino berotegi-efektuko gas gutxiago isurtzen duela hondakin organikoen konpostajeak.
- Azterketa honen emaitzak *Global Change Biology* aldizkari ospetsuan argitaratu dira, "Estudio sistemático de la emisión de gases durante el manejo de residuos sólidos" izenburupean.

[Bilbo, 2015eko otsailak 18]

BC3ko hainbat zientzialarik zuzendutako diziplina anitzeko ikerketa-talde batek "Estudio sistemático de la emisión de gases durante el manejo de residuos sólidos" azterlana argitaratu du *Global Change Biology* aldizkari ospetsuan. Science Citation Index-en arabera, klima-aldaketarekin zerikusia duten gaiak aztertzen dituzten aldizkari garrantzitsuen artean hirugarrena da aldizkari hau, *Nature* eta *Science* aldizkariaren atzetik, eta BC3ko ikerlaria den Guillermo Pardo jaunaren doktore-tesiaren zati da.

Klima-aldaketaren aurkako borrokaren oinarria ezagutza sortzea da, bereziki berotegi-efektuko gas antropogenoen emisioa murrizteko. Isurketa horien kuantifikazioa eta hartarako metodologia Klima Aldaketari buruzko Gobernuarteko Taldearen (IPCC) gidalerroen arabera diseinatzen dira. Ikerketa-lan honetan azaltzen diren ebidentziek, egiaztatzen dute egokia dela hondakin organiko solidoen kudeaketak eragindako berotegi-efektuko gasen estimazioa egiteko metodologiaren aldaketa proposatzea.

Azterlan honen egileek helmen globala duen ikerketa honen bidez egiaztatu dute garrantzi handiko hainbat gasen egungo emisio-indizeak, besteak beste, oxido nitrosoarenak (N₂O), ez direla batere egokiak, bereziki hondakin organikoen konpostaje-prozesuetan aplikatzen direnean.

Ikerketa honen ekarpen nagusia izan da egiaztatu egin duela ohiko biltegitratzeak baino berotegi-efektuko gas gutxiago isurtzen duela hondakin organikoen konpostajeak.

Lan honetan aztertzen da hondakin organikoak kudeatzeko eta erabiltzeko modu ezberdinek nolabaiteko berotze globala eragiten dutela berotegi-efektuko gasen, besteak beste, metanoaren edo oxido nitrosoaren, emisioaren bidez, edota beste hainbat inpaktu, esate baterako gas amoniakoaren emisioarekin zerikusia duen lurzorua azidotzea. Kontuan izan behar dugu nekazaritzak, sintesi-ongarriak aplikatzean, simaurraren edo landare-hondakinen kudeaketaren bidez eta beste

hainbat eratako kudeaketaren edo erabilpenen bidez, eragin esanguratsua duela klima-aldaketan, eta eragin hori isuritako guztiaren % 10-25 ingurukoa da. Hondakin organikoak tratatzeko estrategia ezberdinek berotegi-efektuko gas hauen emisioan zer ondorio dituzten behar bezala jakiteak erraztu egin dezake ingurumenaren gaineko eragina murrizten eta, aldi berean, kudeaketa-sistemak hobetzen lagundu dezaketen erabakiak hartzea.

2

Argitalpen honen oinarri den doktore-tesiaren buruan Agustín del Prado, BC3ko zientzialaria eta Remedia Sarearen (Nekazaritza eta basozaintzako sektorean berotegi-efektuko gasen emisioa murrizteko sare zientifikoa) koordinatzailea dena, eta Raul Moral, Espainiako Konpostaje Sareko koordinatzailea eta Elxeko Miguel Hernández Unibertsitateko katedraduna dena, izan dira. Bi erakundeak dira erreferentzia-zentroak nazioartean.

BC3 diziplina anitzeko ikerketa-zentroa da eta 42 ikerlarik baino gehiagok osatzen dute. 2008an sortu zen Eusko Jaurlaritzaren BERC programaren baitan, eta Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzaz, klima-aldaketaren arazoien eta ondorioen epe luzeko ikerketan bikaintasuna sustatzeko. Klima-aldaketaren politika- eta ekonomia-esparruan mundu mailan eraginik handiena duten zentroyen artean bigarrena dela aitortu diote aurten ICCGk (International Center for Climate Change Governance) egindako Think Tank rankingaren arabera.

Bestalde, Raul Moral irakasleak zuzendutako GIAAMA taldeak COMPOLAB, Espainiako unibertsitateei dagokienez hondakin organikoen tratamendurako zentro aplikatu nagusia dena, kudeatzen du. Balio erantsi handiko bioproduktuak eta patenteak garatzen ditu agronomiaren esparruan, eta, era horretara, ekonomia zirkularra garatzen eta teknologia berdea transferitzen laguntzen du.